| Maila | Mota | Izenburua | Helburuak | Edukiak | Deskribapena |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Sako | <br>**Puntuak lotuz** | - Zenbakien arteko erlazioaz ohartzea.<br>- Zenbakien notazioa eta kontzeptuak erlazionatzea.<br>- Batetik bederatziehun eta laurogeita hemeretzira zenbatzen, irakurtzen eta idazten jakitea.<br>- Banaka, binaka, hirunaka... zenbatzea, goranzko nahiz beheranzko hurrenkeran.<br>- Buruz kalkulatzeko estrategiak erabiltzea. Batuketak eta kenketak buruz egitea.<br>- Batuketara hurbiltzea gehitu nozioaren bidez.<br>- Batugai berdineko batuketak biderketarekin erlazionatzea.<br>- Sagua erabiltzen trebatzea. | - Goranzko eta beheranzko segidak, batetik ehunera. **K**<br>- Batugai berdineko batuketak eta kenketak. **P**<br>- Sagua erabiltzeko urratsak: zehaztasunez klik egitea. **P**<br>- Matematika-jarduera jostagarrietan parte hartzeko zaletasuna. **B**<br>- Edertasun estetikoa estimatzeko joera. **B** | Pantailako zenbakiak lotu, goranzko edo beheranzko hurrenkeran. Denak lotutakoan, irudi bat agertuko da. |